



MARTUTENE

Euskararen egoera auzoan

Gaur egungo egoeran, auzokide guztiek dute zer egin euskarak auzoan duen presentzia hobetzeko. Helburu nagusia, bizitza sozialeko alor guztietan euskara normalki erabili ahal izatea litzateke. Zeren aurrerapausoak eman diren arren, normalizazioa lortzeko bide luzea gelditzen baita oraindik.

Berreskuratze prozesua sendotzen doala ondorioztatu daiteke, izan ere, euskara ongi ezagutzen dutenen proportzio-

rik handiena haur eta gazteen artean baitago. Bestalde, adierazgarria da euskara ezagutzen ez dutenen proportzioa gero eta txikiagoa dela.

Sexuaren arabera berriz, emakumezkoek zertxobait gehiago ezagutzen dute euskara.

Helburua, hala ere, auzo euskaldun baten alde lan eginez Euskal Herri euskaldun batean bizi ahal izatea litzateke.

Euskararen ezagupenaren inguruan:

%38ak ongi ezagutzen du

%31ak zerbait ezagutzen du

%31ak ez du ezagutzen

Euskararen erabilpenari dagokionez:

14 urte bitarte %28ak darabil

15-30 urte bitarte %24ak darabil

31-64 urte bitarte %10ak darabil

65 urtetik aurrera %10ak darabil